

## BIZITZAREN ETA ERIOTZAREN ARTEKO BURRUKA

1. Bizitzatik heriotza,  
heriotzatik bizitza:  
graziaren emaitza,  
pekatuaren gaitza.  
Erneko bada bizia,  
usteldu behar hazia.
2. Maitasuna da nagusi,  
gorrotoz dana jo t'hausi.  
Azkenera arte eutsi,  
nahizta burrukan jausi.  
Gora Jesusen Golgota,  
gorrotoaren porrota!
3. Aitaren borondatea  
azken baten da betea:  
Betor gurutz-nekea,  
bete arte epea.  
Gizonak bota lurpera,
4. Aitak bizira atera,  
Gurutze bedeinkatua,  
gure birjaio-lekua!  
Zu hil beharrekua  
ta ni hortik sortua.  
Gora ta aintza, Kalbario,  
bizi barria dario!
5. Gurutz ondoan begira,  
beraren bi alderdira:  
Ilunpe ta diztira,  
heriotz ta pilpira.  
Besarka biok osorik,  
ez dago beste Kristorik.
6. Munduko gurutzbidea  
sarri bide-gurutzea:  
zelango jarrerea,  
sari edo kaltea.  
Guk beti Jesus jarraitu,  
Berak zuzenduko gaitu.